

# Bizileku baten erregistroa



Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

Gure eguneroko bizitzako leku baten orainaren eta iraganaren inguruan ikertuko dugu, gerora estrategia artistiko ezberdinen bidez esanahi berriak emateko. Gure zeregin partekatua lurralde propio horren elementu, fenomeno edo hura bizitzeko modu berezituak erregistratzea edota berreraikitzea izango da.

## Helburuak

- Alberto Oderizen obrara zein lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Tokiko ondarea ezagutzea eta balorean jartzea, norberaren esperientziatik abiatuta, indibidualtasunetik kolektibora.
- Landa-lana, ikerketa eta lurralde jakin batean jardutea eskatzen duen prozesu artistiko kolektiboa bizitzea.
- Teknika eta tresna artistiko ezberdinen bidez kolektiboki esperimendatzea.

## Erreferentziak

**Alberto Oderiz**

[Cierzo. Los objetos mecidos por él](#)

[Arqueología de un Nacimiento](#)

[PACA: teatro efímero en Andelos](#)

[Galería Plenairista. La sombra de un árbol](#)

**Francis Alyss**

[Colección Balanz](#)

[The Green Line](#)

[Cuando la fe mueve montañas](#)

**Raimond Chaves y Gilda Mantilla**

[Observaciones sobre la ciudad de polvo](#)

[Ruinas fuera de lugar](#)

**Jimmie Durham**

[Árbol de manzanas corbinianas & Árbol de manzanas negras](#)

[Esta piedra es de la montaña / Esta piedra es del Palacio Rojo](#)

**Fischli/Weiss**

[Roca encima de otra roca](#)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** Bikoteka, pentsatzea zeintzuk diren guretzat gure herriko toki garrantzitsuak:: erabilera partekatuko espazio komun esanguratsuak (patioa, parkea, etab.). Bat aukeratu eta mapa bat egingo dugu, mapa osatzen duten elementuak (altzariak, elementu naturalak) bai eta haien bizilekuari buruzko beste datu batzuk (erabilerak, soinuak, ibilbideak, etab.) idatziz eta marraztuz.

**2.** Amankomunean jarriz eta adostuz, gehiago ikertu eta lan egin nahiko genukeen bat aukeratuko dugu.

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Aukeratutako lekuaren gaineko bi ikerketa paraleloan egingo ditugu:

- Espazioaren azterketa arretaz, bikoteka (elementu naturalak, altzariak, klimatologia, soinuak, bizi diren izakiak, erabilerak, etab.). Irteera ezberdinak egitea, egun eta une ezberdinetan, aldaketak eta interesgarria iruditzen zaigun guztiaren idazpena eginez.
- Lekuaren iraganari buruzko ikerketa. Interneten zein herriko aldizkarian bilatzea, baita bizilagunei honako kontuez galdetzea ere: antzinan nolakoa zen lekua, haren oroitzapenak, erabilerak, jada ez dauden elementu/fenomeno esanguratsuak.

Gure ikerketen oharrak hartzeko landa-koaderno bat erabiltzea. Hasierako mapak, marrazkiak, mozketak gehitu ahal dizkiogu.

### Ondorioak eta ildo irekiak

Proiektua hezkuntza komunitatearekin edo biztanleriarekin nola partekatzea pentsatzea. Adibide batzuk: gure esku-hartzeetara bisita gidatuak egitea; gure proiektuaren inguruko albiste-erreportaje bat idaztea eta bailarako aldizkarian argitaratzea; proiektuko materialarekin kultur etxean erakusketa bat muntatzea, etab.

**2.** Ikertutakoa komunean jartzea eta komunak diren interesak antzematea. Hauei lotua, bi ildo proposatzen ditugu:

a) Tokiko berezko ekintza natural/giza egintza edo fenomeno iragankor bat erregistratzea. Esaterako: eguzkiaren iragatea patioaren gainean, saguzarren hegaldia parkean zehar, patioan egiten ditugun joan-etorrien ibilbideak eta abar.

b) Haren memoriari dagokionez, jada ez dagoen elementu edo erabilera esanguratsu bat berreraikitzea, "berreskuratzea", gauzatzea. Adibidez: haurrek jolasten zuten zuhaitz moztu bat, orain existitzen ez den baratze bat, auzokideak berrikeretara biltzen ziren izkina bat, etab.

**3.** Ideia-jasa eragitea, norantz jo erabakitzen laguntzeko. Pentsatzea: Nola "ikusarazi", erregistratu, berreraiki, materializatu ditzakegu fenomeno efimero horiek, desagertutako elementuak, edota interesgarriak iruditzen zaizkigun tokiko erabilerak? Zein material eta teknikarekin? Kanpoko laguntza behar dugu gure ideiak aurrera eramateko edo eskura dugunarekin konpondu gaitezke? etab.

**4.** Zeregin honekin laguntzeko, Alberto Oderizen edo beste artista batzuen lanak ikustea (erreferentziak ikusi).

**5.** Zer "ikusarazi" nahi dugun argi dugunean, lantaldeetan antolatzea eta lanari ekitea. Gai zehatz bat aukeratu eta teknika ezberdinetatik (marrazkia, argazkia, eskultura, ekintza, esku-hartzea) jorratu dezakegu, edo esku-hartze bat edo batzuk in situ egin.